

Emaitzek Erakundearen aurreikuspenak gainditu dituzte, ezohiko sarrerarik gabeko hiruhilekoan

Kutxabankek 61,8 milioi euroko irabazia lortu du, banka-negozioa nabarmen hazita

- **Negozio-esparru nagusietan dituen merkatu-kuotak igo dira, hau da, hipoteketan, zorro-delegatuetan, inbertsio-fondoetan, pentsio-planetan eta BGAEtan**
- **Ekoizpen hipotekario berrian 1.000 milioi euroko langa jarraian gainditzen duen hiruhilekoa izan da, % 55,7 hazita hiruhilekoko errekorra ezarri baitu**
- **Administraturiko baliabideak % 11,3 hazi dira, eta inbertsio fondoetan sarrera garbi gehien izan duen hirugarren erakundea izan da, delegatutako-zorroetan azpimarratzeko bilakaera lortu eta gero**
- **Negozio bolumena 117.000 milioi eurora arte hazi da, % 9,2 gehiago**
- **Urteko lehen hiru hilabeteetan 45 milioi eurotan murriztu du zalantzazko aktiboen bolumena, eta alorreko berankortasun maila txikienetakoa du, % 2,19koa**
- **Partaidetuen zorroa 2.100 milioi eurotik gora kokatu da, % 14 errebalorizatu ondoren**

2021eko apirilaren 29an. Kutxabank Taldeak urteko lehen hiruhilekoan **61,8 milioi** euroko irabazi garbia izan du.

Emaitza honekin, finantza Taldeak bere buruari urteko lehen hiruhilekorako jarri zizkion helburuak bete ditu, eta agerian utzi ditu bere **banka-produktu nagusien kemena**, merkatu-kuota bereganatzen jarraitu baitute, eta **negozio-ereduaren sendotasuna**.

Gainera, urteko lehen hilabeteetarako finkatu zituen aurreikuspenak gainditu dira, eta datozen hiruhilekoetarako irabaziak hazi egingo direla esan dezake. Nolanahi ere, **ezohiko irabazirik gabe** eta **dibidendu jakin batzuen kobrantza atzeratu** izanak, mozkin garbiaren bilakaera baldintzatu dute, eta iaz garai berekoarekin alderatuta **% 32,7** murriztu da emaitza.

Kutxabank Taldeko **partaidetuen zorroak** balioa sortzeko duen ohiko gaitasuna izan du berriro, eta ia % 14 errebalorizatu da azken 12 hilabeteetan, **2.129 milioi** eurora arte iritsi da.

Arlo ekonomikoan, 2021eko lehen hiruhilekoa pandemiaren bilakaeraren menpe egon da. Urtearen hasiera okerrak barne produktu gordinaren gaineko aurreikuspenak txarrera eraman ditu, berreskurapenari ziurgabetasun handiagoa erantsi dio, eta goranzko joera ikusi den arren merkatuek lurrunkortasun handiarekin jarraitzen dute. Honi guztiari gehitu behar zaio, interes tipoek etenik gabe negatiboan segitzen dutela, nahiz eta epe luzerakoak bere onera etortzen hasiak diren, motel bada ere.

Testuinguru zail honetan, Kutxabankek bere 'core' produktuetan **merkatu-kuota** irabazten jarraitu du, alorrarekin alderatuta bilakaera ona lortuta, gainera.

'Core' produktuetan merkatu kuotak

Hipoteka berriak



% 9,7

(+153 op)

(20ko abendua)

Mailegu osoa



% 3,9

(+3 op)

(20ko abendua)

Inbertsio Fondoak



% 6,54

(+50 op)

(21eko martxoa)

BGAE



% 48,7

(+118 op)

(20ko abendua)


Kutxaban Taldearen **negozio bolumena 117.000 milioi** eurotan kokatu da, duela urtebete baino **% 9,2** gehiago. Hazkunde honetan erabakigarria izan dira mailegu inbertsioaren, bezeroen gordailuen eta balantzetik kanpoko baliabideen bilakaera onak, azken hauek % 21,1 igo baitira azken 12 hilabeteetan.

Hipoteka berrietan errekorra

Xehekako sareak ohikoa duen jarduerari eutsi dio jarduera komertzialean, eta zeuzkan helburuak bete ditu hipoteka-mailegu berrietan, kontsumorako maileguetan, baliabideetan eta aseguruetan.

Ekoizpen hipotekario berriari dagokionean, Kutxabank taldeak bere **lidertza sendotu** du, eta hori argi ikusi da merkatu-kuoten hazkunderan.

Gaur egun, EAEko hipoteka mailegu guztien **% 45,7** Kutxabankek dauka, **% 16,4ra** iritsi da Andaluzian eta **% 10** inguruan kokatu da Estatuan, berezko merkatu kuotarengatik dagokiona baino askoz ere gorago.

Hipoteketan merkatu-kuotaren bilakaera (% , zenbatekoan)


Hirugarren hiruhilekoa izan du jarraian formalizazio berrietan 1.000 milioi euroko langa gainditzen. Zehazki, **1.093 milioi** euro sinatu dira hipoteka berrietan, iaz garai berean baino **% 56 gehiago**. Urte arteko bilakaera positibo hau handiagoa izan da Euskaditik kanpo, **% 84** hazi baita, eta **% 60** Cajasurren.

Behar pertsonaletarako ematen diren maileguak apurka-apurka bere onera datozen bitartean, krisiaren ondoren goranzko bidea hartu du **Merkataritza Maileguak**, eta iazko lehen hiruhilekoarekin alderatuta **% 14,3** hazi da.

Enpresetan eta erakundeetan mailegu-inbertsioa hazi da

Kutxabankek negozio sareen mailegu inbertsioa **% 6,6 igota** hasi du urtea, eta **44.886 milioi** eurora arte hazi da.

Bilakaera positibo hau lortzerakoan, Enpresen eta Erakundeen Bankak izan dituzten igoerak hartu behar dira aintzat, saldoetan **630 milioi** eurotik gora hazi baitira. **Enpresetako** mailegu-inbertsioak **% 7** egin du aurrera iazko lehen hiruhilekoaren aldean, eta **Erakundeetako Banka % 43,8** hazi da. Emandako finantzazio berria, berriz, **875 milioi** eurokoa izan da.

Gainera, enpresetako bankak **3.000 milioi** eurotik gora eman ditu azken urtean pandemiari aurre egiteko enpresa eta erakundeei eman zaien finantzazioan.

Azpimarratzekoak da, halaber, handizkako alorrak **egitasmo berde eta jasangarri**ei 2021ean bideratu dizkien **340 milioi** euroko finantzazioa.


Bezeroen baliabideak indartsu

Bezeroen baliabideek goranzko joerari eutsi diote, azken hilabeteetan gertatu den bezala, hein handi batean balantzetik kanpoko baliabideek izan duten jokoerarengatik. **% 11,3** hazita, negozio sareetan atal hau **69.462 milioi** eurora iritsi da.

Inbertsio fondoetan merkatuaren konfiantza osoa jasotzen jarraitu du Kutxabank taldeak, eta **sarrera garbietan** lehen postuetan kokatu da berriro, **750 milioi** euro bereganatuta, iazkoaren aldean % 53 hazi ondoren.

Honela, Taldeak fondoek kudeaketako merkatu-kuotan **oinarriko 50 puntu** hobetzea lortu du. Horrez gain, **delegatutako zorroen** kudeaketan erreferentziazko bankua da, jarduera komertzialari esker merkatu honetan 600 milioi bereganatu baititu.

Inbertsio fondoetan merkatuaren bilakaera (% , zenbatekoan)



Hiruhileko honetan inbertsio fondoetan sinatu diren 10 eurotik 1 Kutxabanke bereganatu du

Taldeak kudeatzen dituen **pentsio-planen eta BGAE-n** bilakaera ere azpimarratzekoa izan da, % **16,6** igo baitira iazko epealdi berarekin alderatuz gero. Aurreikuspenaren alorrean Espainiako laugarren Talde handiena da Kutxabank, eta inbertsio-fondoak, pentsio-planak eta BGAE-k aintzat hartuta bostgarren postuan kokatzen da.

Zalantzazko aktiboak, behera berriro

Kutxabanke bere **berankortasun maila** murrizten jarraitzen du, dagoeneko % **2,19koa** da. Beherakada hau hiru hilabeteetan **oinarriko 13 puntukoa** izan da. Alorrarekin alderatuta emaitza ona da, otsailaren bukaeran bankaren berankortasuna % **4,55koa** baitzen.

Hobekuntza honi zalantzazko aktiboak gutxitu izanak lagundu dio, azken 12 hilabeteetan **290 milioi** euro jeitsi baitira, 45 milioi euro urteko lehen hiru hilabeteetan.

Emaizten kontua

Emaizten kontuan, banka-negozioaren **'Core' sarrerak**, hau da, interesen marjina, komisioak eta aseguruen negozioak batuta, **% 5** hazi dira, eta **276,2 milioi** eurotan kokatu dira.

Hazkunde honen barruan, **Interesen Marjina % 0,7** igo da, interes tipoek etenik gabe negatiboan jarraitu arren. **Zerbitzuengatik jasotzen diren sarrerak % 9,7** handitu dira, batik bat aseguruen negozioak lagunduta, alor honen ekarpena **% 11** hazi baita, guztira ia **33 milioi** euro.

Marjina Gordinaren bilakaeran ikus daiteke ezohiko emaitzarik ez dela izan, eta inbertsio-zorroko dibidendu jakin batzuen kobrantza bigarren hiruhilekora atzeratu dela. Honela, marjina hau **272 milioi** eurokoa izan da, iaz baino **% 2,7** txikiagoa.

Kostuak murrizteko eta baliabideen erabilera hobetzeko politikak eraginkor izaten jarraitu dute, eraginkortasunaren kudeaketa erakundearen helburu estrategikoetako bat baita. Honela, **Ustiapen Gastuek % 7,5** txikitzen jarraitu dute, eta **Ustiapen Marjina 124 milioi** eurotan utzi dute, **% 3,9** hazita.

Urteko lehen hilabeteetan zuzkiduren beharrak nabarmen murriztu dira, sarrera txikiagoez gain berreskurapen garrantzitsuak lortu baitira. Mailegu zorroaren eta beste aktibo batzuen **saneamenduetara 41 milioi** euro inguru bideratu dira epealdi honetan.

Emaizten fiskalitatea aintzat izan eta gero, Taldearen **etekin trinkoa 61,8 milioi** eurokoa izan da, iaz garai berean baino **% 32,7** txikiagoa.

Hiruhilekoaren amaieran, Kutxabankek **CET1 phased-in** mailako kaudimenean lider jarraitzen zuen, **% 17,9ko** ratioarekin. Honek kontutan hartzen ditu 2018 baino lehenagoko zalantzazko maileguak estaltzeko egin ziren zuhurtziazko hornidurak. Kenketa hori ez balitz egin, **% 18,2koa** izango litzateke CET1 phased-in ratioa.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2021eko martxoa

Milioi euro	2021eko martxoa	%Δ
Interesen marjina	137,1	0,7
Komisioak eta aseguruak	139,1	9,7
Banka negozioaren 'core' sarrerak	276,2	5,0
Dibidenduak eta baliokidetasuna	1,0	-96,0
ROF	0,1	-101,7
Beste ustiapen emaitzak	-4,7	33,2
Marjina Gordina	272,5	-2,7
Ustiapen gastuak	-148,4	-7,5
Ustiapen Marjina	124,0	3,9
Saneamenduak eta narriadurak	-40,9	-71,7
Beste irabazi eta galerak	3,3	-97,8
Emaitzen aurreko irabazia	86,4	-30,0
Zergak eta bestelakoak	-24,6	-22,4
Taldearen emaitza	61,8	-32,7

* Beste irabazi eta galeren atalean, 2020ko martxoan gordailuizanen negozioa utzi ondorengo emaitzak bateratzen dira